



“Denoï korrika egiteko zaletasuna piztu zaigu Wop Challenge probagaz”

Traña-Matienako Motozain eta Taberna Zarra taldeek urriaren 2tik 3ra Bizkaia zeharkatuko duen 226 kilometroko proban parte hartuko dute. Korrika erreleboka arituko dira 19 etapatan. Prestakuntzaren azken fasean daude eta pike sanoa sortu da talde bien artean. • 2-3



"Benetan egoera gogorra bizitzen dabilta La Palman"

Joan zen domekan, Cumbre Vieja sumendia piztu zen Kanaria uharteetako La Palman. Naroa Urien abadiñarra EITB-ko berriemaile berezi lez dago han. Kazetari abadiñarrak ANBOTOrri jakinarazi dionez, "La Palma kaosa da une honetan". • 11



Erorien Haranetik José Larrañagaren gorpuzkiak ateratzen hasi dira

Erorien Haranetik hainbat gorpuzki ateratzen hasi dira aste honetan, tartean José Larrañaga Zarraoa elorriarrarenak. Larrañagaren ilobaren berbetan, eurentzat "oso pozgarria da" da osabaren gorpuzkiak Erorien Haranetik ateratzeko bideari ekitea. • 6

ALKIMAX
Alquilamos soluciones

www.alkimax.net

Eitua industriagunea, 71C
48240 Berriz
946 824 550
alkimax@alkimax.net

Goikoibarra, 26
48240 Gemika
946 271 810

administracion@alkimax.net



“Lasterketan parte hartuko ez dutenek esaten digute: 'Ez dago beste gairik ala?'”

Lagunak dira, baina talde banatan dabilta eta batak besteari irabazi gura diote; Korrika erreleboka, Wop Challenge proban parte hartuko dute urriko lehenengo asteburuan



Ezkerretik hasita: Ion Zubizarreta, Egoi Urriz, Martiñe Usabel eta Jon Mendizabal. Ezkerreko biak Taberna Zarra taldeko kideak dira eta eskumako biak Motozain taldekoak.

ELKARRIZKETA • JOSEBA DERTEANO

Traña-Matienako kuadrilla batzuek gai bakarra darabilte ahoan azken aspaldian. 12 laguneko talde bik Wop Challenge-n parte hartuko dute urriaren 2tik 3rako asteburuan. Probako 19 etapak –226 kilometro korrika– erreleboka egingo dituzte, Bizkaia zeharkatu eta Bilbon amaituko den lasterketan. Pike sanoa sortu da talde bietako kideen artean. Ion Zubizarreta Pascual eta Egoi Urriz Bengoa Taberna Zarra taldekoak dira; Martiñe Usabel Lizundia eta Jon Mendizabal Elexpuru, ostera, Motozain taldekoak. Helburua argi dago: bata bestearen aurretik geratzea. Irabazleentzat loria eta galtzaileentzat... urtebeteko bromak!

Zelan sortu ziren taldeak?

Jon Mendizabal: Orain urte bi, Matienan genbiltzala jendea korrika pasatzen ikusi genuen. Lasterketa bat ematen zuen. Orduan ezagutu genuen lehenengoz. Eta, aurten, lagun arteko solasaldi batean, talde bat sortu eta parte hartzeko ideia irten zen. Ekain-uztail ingurua zen eta ez zegoen denbora askorik prestatzeko, baina bada-

kizu horrelako burutazioek zelan egiten duten aurrera, ezta? "Ezetz egin!", esanda.

Ion Zubizarreta: Motozain enpresak probak egiten ditu motoekin. Hango lagun bat dugu eta taldea sortuz gero bera babesle izateko prest zegoela esan zigun. Hortik irten zuen lehenengo taldeak.

Egoi Urriz: Taldera batzea proposatu zidaten, baina izena eman orduko taldea bete egin zen, segituan. Orduan, lau-bosten artean beste talde bat sortzea okurritu zitzaigun. Egia esanda, pare bat egunean bagenituen hamabi lagunak.

Talde bien artean pikea dagoela esan didate.

J.M.: Bai, jakina, badago.

Martiñe Usabel: Pike sano bat.

E.U.: Batzuk beste batzuk baino gehiago, egia esanda. Batzuek ondo daramate eta beste batzuek... **Irabazi egin gura dute!**

I.Z.: Baina irabazi batak besteari! Badakigu proba bera ez duela talde bietako batek ere irabaziko.

Lagun artean elkarregaz zabiltzatenean berba asko egiten duzue probari buruz?

J.M.: Ez dizut esango gai bakarra denik, baina ia-ia!

I.Z.: Lasterketan parte hartuko ez dutenek esan ohi digute: "Ez dago beste gairik ala?"

Jon Mendizabal: "Nire ustez, denoi korrika egiteko zaletasuna piztu zaigu proba honegaz"

E.U.: Dena komentatzen dugu. Zer entrenamendu egin dugun egun horretan, denborak, sentsazioak... **Eta kontatzen duzuenetik, zenbat da egia eta zenbat bestea despistatzeko esana?**

I.Z.: Nire kasuan, dena da egia. Ez dut ezer ezkutatzeko.

M.U.: Ni ere zintzoa naiz. Azken batean, bakoitzak duen maila du eta ez da sekretua ere.

I.Z.: Gainera, korrikalaririk onenak ez dira hona etortzen entrenatzerara...

J.M.: Entzun dut, bai, fitxaketa batzuk egin dituzuela...

M.U.: Herritik kanpoko fitxaketa!

E.U.: Tira, gure taldeko baten eza-guna da. Triatloietan dabilen bat. Bilbotar bat.

I.Z.: Ez da, ba, zornotzarra?

M.U.: Begitu, eurek ere ez dakite nongoa den!

Jon eta Martiñe, zer deritzozue fitxaketa honi?

J.M.: Niri berdin dit. Etapan elkarregaz bagoaz, itsasora botako dut, besterik ez! (barrez). Hori bai, gero poteoan lagunak berriro.

Zuek zer esperientzia duzue horrelako lasterketan?

I.Z.: Nik batere ez. Aspaldi futbolearen aritu nintzen.

E.U.: Ni pandemiagaz mendian korrika hasi nintzen. Honegaz, asfaltoan askoz gehiago nabil.

M.U.: Ni bizikletan ibili izan naiz batez ere. Eta orain korrika, jakina.

J.M.: Lehenago, astean behin edo birritan egiten nuen korrika. Orain, askoz serioago nabil. Esango nuke denoi korrika egiteko zaletasuna piztu zaigula proba honegaz. 24 pertsona korrika ipini ditu berriro. **Astebete baino ez da falta. Ehuneko ehunetan zaudete?**

J.M.: Ni %90ean (barrez). Ehuneko

ehunerako bidean. Kontuan hartu behar da taldea sortzea ia azken orduko erabaki bat izan dela. Ekain-uztailetik gabilta entrenatzen, ez urte hasieratik. Denon kasua da hori.

Jon Zubizarreta: "Azken batean, lagunak gara. Denok lan ona egitea gustatuko litzaidake"

M.U.: Nik goiz eta arratsalde lan egiten dut, baina ahal dudana denetan irtetzen dut. Nire etapa hamabi kilometrokoa da eta badakit egin dezakedana. Erritmoa zein izango den? Ez dakit. Dakidana da dudana guztia emango dudana.

E.U.: Orain pare bat aste hobeto nongoen. Gero, bizkarra apur bat minduta, geratu egin behar izan nuen. Baina beste astetxo bat gertatzen da... ez naiz txarto helduko. Nik etapa bi ditut: lehenengoan dena emango dut eta bigarrena, bada, ikusi egin behar.

I.Z.: Urte asko neramatzan korrika egin barik eta entrenamendu espres honegaz belaunak mindu egin zaizkit, baina orain ondo nago.

Esandako guztia kontuan hartuta, zein talde da faborito?

J.M.: Nik uste eurek direla faborito, Taberna Zarra taldekoak. Baina ez diot triatloilariagaitik. Orokorrean, lau-bost korrikalari nahiko potenteak dituzte.

M.U.: Eta gaztetasuna ere badute. Batez beste, adinez gazteagoak dira. Gorabehera handirik ez badago, eurek irabaziko dute.

I.Z.: Nik ez dut hain garbi ikusten faboritoak geu izatea. Nire ustez, eurek ere hainbat korrikalari on dituzte.

Egoi Urriz: "Ohorea baino ez dago jokoan. Nahikoa penitentzia izango da urtebetean besteen bromak entzutea"

E.U.: Hori da. Euren kalkuluak eta errealitatea ez datozela bat uste dut. Nik ez dut batere garbi ikusten nor irabaziko duen.

Dena ez da korrika egitea, logistika bat ere eskatzen du. Zelan daramazu arlo hori?

J.M.: Guk etapa bakoitzeko korrikalariak aukeratuta ditugu. Horrez

gainera, bestelako kontuak ere lotuta ditugu. Korrikalariak kotxean irteerara eramatea, orduak zaintzea... Horrek guztiak antolaketa bat eskatzen du.

E.U.: Gure kasuan, etapa bakoitzeko korrikalariak erabakita ditugu, baina gainerako guztia... ez hain beste.

J.M.: Hara, horretan gu hobeto gabiltza orduan! Korrika ez dakit baina horretan behintzat...

I.Z.: Tira, baina oraindino badugu astia eta ez dut uste hain gatxa denik.

Errugbi munduko analogia erabiliz, lasterketa amaitzen denean hirugarren denbora egongo da?

E.U.: Bai, jakina! Lasterketaren hurrengo asteburuan bazkaria denok elkarregaz!

J.M.: Eta egunean bertan ere zozker egongo da.

M.U.: Batzuk jai hartu dute astelehena...

I.Z.: Azken batean, lagunak gara. Denok lan ona egitea gustatuko litzaidake. Gutariko askorentzat erronka pertsonal bat ere bada lasterketako gure etapak amaitzea eta ahalik eta ondoen egitea.

Galtzaileek ezer ordaindu behar dute?

E.U.: Ohorea baino ez dago jokoan. Nahikoa penitentzia da urtebetean besteen bromak eta adar-jotzeak entzun beharra...

Jon Solagaistua eta Egoi Urriz, Traña-Matienatik igaroko den erreleboko protagonistak

Wop Challenge lasterketa 19 etapatan banatuta dago eta eurentariko lauk Durangaldeagaz lotura dute: 4. eta 7. etapak eskualdean amaitu eta hasiko dira, hurrenez hurren. Tarteko biak Durangaldean izango dira osorik. Denetan bereziena 5. etapa izango da talde bientzat, Matiena erditik igaroko da eta.

Urkiolako mendate gainean hasiko da erreleboa, eta Txakurzulo inguruan Mendiolaraino doan pistan sartuko dira. Handik Durangora joango dira lehenengo, eta Matienara ondoren. Matiena erditik igaro eta San Blas hostalaren parean egongo da erreleboaren amaiera (15,6 kilometro).

Bai Taberna Zarra taldean eta bai Motozain taldean abadiñar bik egingo dute etapa hori: Egoi Urrizek eta Jon Solagaistuak. Kuadrilla berekoak dira gainera. Berarentzat momentu "politak" izango dela onartu du Urrizek.

Zapatu arratsalde-iluntzean pasatuko dira Matienatik. Dena ondo badoa, 21:00-21:30 inguruan. Eta baliteke biak batera edo oso denbora gutxiren barruan pasatzea. "Aurreko

Dena aurreikusitako moduan badoa, abadiñar biak zapatu iluntzean igaroko dira Traña-Matiena erditik

lau etapetan talde bakoitzetik zein korrikalari ibiliko diren ikusita, niren ustez ez da alde handirik egongo bien artean. Polita izango litzateke biak batera pasatuko balira", onartu du Ion Zubizarretak. Lasterketaren harira, zapatu iluntzean Matienan "giroa" egongo dela aurreratu dute.

Hurrengo etapa ere eskualdean izango da osorik. Matienatik Oizera joango dira, Garaitik igarota. 13 kilometroko ibilbidea da.



Lau etapak lotura dute Durangaldeagaz. Bosgarrena eta seigarrena eskualdeko lurretan dira, osorik.



Bilbon hasi eta amaituko den probak 226km ditu.

Durangoko 18 saltokitako arropak, osagarriak eta oinetakoak erakutsiko dituzte barikuko Fashion Gauean

Durangaldeko 60 modelok udazken-neguko proposamenak erakutsiko dituzte Andra Mariko elizpean egingo den ekitaldian



Durangoko Fashion Gauak bosgarren aldia egingo du aurten; iaz ez zuten egin, pandemiagaitik.

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

2020ko parentesiaren ondoren, Durangoko Fashion Gauak bosgarren aldia egingo du bariku honetan, 20:30ean hasita. Durangaldeko 60 modelok Durangoko 18 saltokitako

arropa, oinetako eta osagarriekin jantzita desfilatuko dute Andra Mariko elizpean egongo den pasarelatik. Udazken-negu denboraldiari begirako tendentziak erakutsiko dituzte.

Modelo lanak egingo dituzten guztiak Durangoko eta Durangaldeko bizilagunak dira: 40 nagusi eta 20 ume. 18 urtetik gorako modelook hile hasieran eginiko casting batean aukeratu zituzten; umeen

kasuan, dendetakoak arduratu dira aukeraketaz. Ohitura den moduan, Yolanda Alzolak aurkeztuko du ekitaldia.

Desfilean zehar, L'Atelier dantza eta antzerki eskolak erakustaldi

bi eskainiko ditu, bat klasikoa eta bestea Dance estilokoa.

Deskontu txartelen zozketak
Ekitaldian zehar 100 euroko bost kontu txartel zozkatuko dituzte. Parte hartzeko, Durangoko saltokiek banatuko dituzten flyerak, irailaren 10etik 24ra bitarteko erosketarekin batera, Dendak Bairen bulegoan —Askatasun etorbidea, 2— ipini duten kutxan sartu beharko dira.

Desfilean zehar L'Atelier dantza eta antzerki eskolak erakustaldi bi eskainiko ditu

Ekitaldia COVID-19aren aurka prebentzio- eta higiene-neurriak hartuta egingo da. Hori dela-eta, Andra Mariko elizaren arkupera tarteka eta ilara bitan egingo da sarrera: batetik, erreserba duten pertsonak (dendak, modelook...), eta, bestetik, erreserba ez dutenentzat toki bat gordeko da.

Durangoko Fashion Gauda Dendak Bai elkarteak antolatuko du, Durangoko Udalaren eta Eusko Jaurlaritzako Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren babesagaz.

Durangoko Udalak eta herriko euskaltegiak euskara ikastera animatu dituzte durangarrak

DURANGO • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Udal Euskaltegiak, AEK-k eta Hizkuntza Eskola Ofizialak ikasturte berrirako dituzten eskaintzak azaldu dituzte. “Euskaraz bizitzera edo euskarazko ezagutza maila ezberdinak izatera gonbidatu gura ditugu durangarrak, ahalik eta Durango euskaldunago bat izateko helburuagaz”, adierazi du Neskutz Rodriguez zinegotziak. Matrikulazio epea zabalik dago hiru leketan: AEK-n irailaren 28ra arte eman daitezke izena, Udal Euskaltegian 30era arte eta Hizkuntza eskolan urtarrilaren 31ra arte.



Udaleko eta euskaltegiako arduradunak.

Durangoko Turismo Bulegoko bisitak %276 hazi dira udan

Datu horiekin, 2019ko bisita kopurura heldu dira; urte horretan, 6.268 bisitari izan zituzten

DURANGO • JONE GUENETXEA

Kontsulta eta zerbitzuen artean, Durangoko Udaleko Turismo Bulegoak 6.244 bisitari izan ditu ekainean, uztailan eta abuztuan; hau da, %276ko hazkundera izan du iazko udagaz alderatuta, orduan 2.262 pertsona igaro ziren-eta bulegotik. Datu horiekin, Turismo Bulegoa 2019ko bisita kopurura heldu da; izan ere, urte horretan 6.268 erabiltzailek bisi-

tatu zituzten instalazioak. Turismo Bulegoan eginiko kontsultei dagokionez, gorakada %332koa izan da; izan ere, 2020an 727 kontsulta egin ziren eta aurten 2.418. Abuztua da oraindino Turismo Bulegoaren hilerik garrantzitsuenak, orduan joaten da-eta jenderik gehien. Durangoko Udala Turismo Plan jasagarria egiten dabil turismo sektoreko hainbat eragilegatz.

anboto ▶

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558

Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org
2021eko irailaren 24a
19. urtea - 863. alea

Zuzendaria: Jone Guenetxea Arrinda.
Erredakzio burua: Ekaitz Herrera Azkarraga.
Administrazio burua: Itziar Belar Zubizarreta.
Administrazioa: Miren Abasolo Txabari.
Publizitatea: Alazne Salcedo Artetxe eta Goretzi Alonso Armendia
Erredakzioa: Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.
Maketazioa: Ainhoa Iraola Mazorriaga.
Zuzentzailea: Mikel Azkarraga Etxegibel.

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
12.000 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

**KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA**

**DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Durangoko anbulatorio zaharra hezur-muinak emateko erregistro-gune bihur dadila eskatuko du Durangoko Udalak

Ima Garrastatxu alkatea eta Julian Rios alkateordea Mauri Imaz Bengoa 'Turkiolo'-gaz bildu dira. Durangarrak ia urtebete darama Urkiola egunero bizikletan igotzen, 'Tourkiola365' proiektuaren barruan hezur-muinaren dohaintza sustatzeko



'Tourkiolo' Urkiolan.

DURANGO • JONE GUENETXEA

Ima Garrastatxu Durangoko alkatea eta Julian Rios alkateordea Mauri Imaz Bengoa 'Turkiolo'-gaz bildu dira. Durangarrak ia urtebete darama Urkiola egunero bizikletan igotzen, 'Tourkiola365' proiektuaren barruan, herritarrak hezur-muina ematearen garrantziaz sentsibilizatzeko. Prentsa oharrean azaldu dutenez, bilera horretan Garrastatxuk eta Riosek adierazi diote gobernu taldeak eskaera horren alde egiten duela eta Durangoko anbulatorio zaharra hezur-muinak emateko erregistro-gune bihurtzea eskatuko diola Osakidetxari, odolagaz eta plasmagaz egiten den moduan. Eskaera onartuz gero, Durango arlo horretako Bizkaiko laugarren

erregistro puntua izango litzateke. Datorren urriaren 11n, 'Tourkiolo'-k 365 egun jarraian beteko ditu Urkiola bizikletan igotzen. "Harro egoteko modukoa da hezur-muinaren dohaintza sustatzeko proiektu nobleetan inplikatu diren pertsonak izatea Durangon. Udalak ahal

Datorren urriaren 11n, 'Tourkiolo'-k 365 egun jarraian beteko ditu Urkiola bizikleta igotzen

duen guztian lagunduko du horrelako ekimenetan, Durango hobea eraikitzen laguntzeko", esan dute udal ordezkariak.

Anbulatorio zaharrak hezur-muinak emateko erregistro-eremu bat izan dezan egin daitezkeen ekimen instituzionaletatik hara-tago, alkateak eta alkateordeak durangarrak animatu gura izan dituzte 'Tourkiolo'-k bere ibilaldia- ren amaierarako prestatu dituen jardueri babesa ematera. Azken iguera urriaren 11n izango da.

Plateruena zabalik egongo da Durangoko Azokako egunetan

Udalak dioenez, datozen hileetan "aurrerapauso sendoak" egongo dira antzokiaren etorkizuna erabakitzeko

DURANGO • JONE GUENETXEA

Plateruena etorkizuna erabakitzeke badago ere, Durangoko Azokako egunetan eraikina zabaltea erabaki du Durangoko Udalak. Plateruena 2020ko abenduan ateak itxi zituen 18 urteko ibilbideari amaiera emanez. Uda-berrian prozesu parte hartzailea martxan ipini zuten kultur-gunearen etorkizunari buruz hausnartzeko. 100 herritar, sortzaile, elkarte zein kultur eragiletik gora aritu dira antzokiaren etorkizunari buruz hausnartzen. Udalak dioenez, prozesu horretan proposamen asko egin da Plateruena edukiz hornitu eta eskaintza elikatzeke: "Eskaintza hori proiektu kultural baten aterkipean egotearen garrantzia ere azpimarratu da". Beraz, udalak kultur-gunearen

inguruko erabakia hartu bitartean, antzokia zabalik egongo da egun batzuetan. Udal arduradunen esanetan, datozen hileetan "aurrerapauso sendoak" egingo dira Plateruena behin betiko zabaldu ditzan ateak. "Berririkiera honetarako erabili dugun lema

"Argi dugu Plateruena indartsu bat behar dugula Durango are indartsuago bat eraikitzeko"

dioen moduan, leihotxiki bat zabaldu dugu etorkizunaz hausnartzen dugun bitartean. Argi dugu Plateruena indartsu bat behar dugula Durango are indartsuago bat eraikitzeko", gaineratu dute.

Sei taldek parte hartuko dute Zornotzako Txistu Egunean, zapatuan

Txistulari bandek herriko kaleetan egingo dituzten kalejirekin ekingo diote egitarauari



Txistulari Egun bateko argazkia.

ZORNOTZA • JONE GUENETXEA

Udazken Txistulari Taldeak, udalagaz elkarlanean, Zornotzako Txistulari Eguna antolatu du zapatarako. Aurtengoagaz, XX. edizioa beteko dute. Udalak gogorazi du hau ez dela "ohiko edizioa". Hala ere, ekimena antolatzea erabaki dute, "segurtasun neurri guztiekin". Txistulariek hainbat kalejiratan zeharkatuko dituzte herriko kaleak, 17:00etan. 18:00etan, banda guztiek elkarregaz irtengo dute kalejiran. Sei taldek parte hartuko dute: Usartza Txistulari Taldeak (Eibar), Itxaropena Txistulari Taldeak (Lekeitio), Kankinkabara Txistulari Taldeak (Bermeo), Goiz Deia Txistulari taldeak (Lepazpia), Jaizale Txistulari Taldeak (Durango) eta Udazken Txistulari Taldeak (Zornotza).

 **Smurfit Kappa**
Central forestal

+50 urte
EUSKADIKO
PINUDIAK
ZAITZEN

 **Smurfit Kappa**
Nervi3n



"Guretzat oso pozgarria da osabaren gorpuzkiak Erorien Haranetik berreskuratzeko bideari ekitea"

Aste honetan, Erorien Haranetik (Madril) hainbat gorpuzki ateratzen hasi dira, tartean José Larrañaga Zarraoarenak

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Jesus Aristegiren osaba, José Larrañaga Zarraoa, Elorrioko Gazeta auzoko Aranzeta Txiki baserriatik eramane zuten tropa frankistek, 18 urte zituela. Urteetan, familiak ez zuen Larrañagaren berririk izan eta, Aranzadiri eskerrak, bere gorpuzkiak Madrileko Erorien Haranean zeudela jakin zuten.

Urteetako borrokaren ostean, denbora luzez itxaroten egon diren mezua jaso dute Larrañagaren senitartekoez aste honetan: Larrañagaren eta beste hainbat lagunaren gorpuzkiak ateratzen hasi dira Erorien Haranean. "Guretzat oso pozgarria da osabaren gorpuzkiak Erorien Haranetik berreskuratzeko bideari ekitea", azaldu du

Jesus Aristegik. Hala ere, aitortu du badakitela bide hori oraindino luzea eta gatxa izan daitekeela. "Abisatu digute bidean zailtasunak egon daitezkeela, lanek luze jo dezaketela eta balitekeela osabaren gorpuzkiak ez agertzea. Hala ere, familiarentzat oso garrantzitsua da lan hauekin hasi direla jakitea", jarraitu du.

Bestalde, orain arteko bidea "luzea" izan dela aitortu du Aristegik, eta, batez ere, talde memorialistek eginiko lanari eskerrak heldu direla puntu honetaraino. "Talde

"Abisatu digute bidean zailtasunak egon daitezkeela eta lanek luze jo dezaketela"

hauek bultzatuta, familiak mugitzen hasi gara eta DNA probaren bitartez lortu genuen jakitea gure senitartekoez han zeudela", gehitu du Aristegik.

Justizia eta erreparazioa

Aristegik azpimarratu du garrantzitsua dela Larrañagaren gorpuzkiak Erorien Haranetik ateratzea, ez bakarrik "osaba etxera" ekartzeko, baita zer gertatu zen gogoratze-ko, justizia egiteko eta erreparazioa aldarrikatzeko ere.

Elorrioko Udalak ohiko mediku arreta presentzialari berrekiteko eskatu du

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari bidalitako gutun baten bitartez, Elorrioko Udalak herriko anbulatorioan aurrez aurreko arreta medikoa normaltasunez martxan ipintzeko eskatu dio Osakidetza. "Badakigu pandemiaren ondorioz zenbait neurri hartu behar izan zela, telefono bidezko kontsultak ezarrita, baina 18 hilabete geroago zerbitzu askok ohiko jarduerari heldu diote eta kontsulta medikoak ez. Horrek benetan kezkatzen gaitu, gure ustez funtsezkoa delako gure osasun-zentroan aurrez aurreko arreta bermatzea, lehen mailako arreta indartzen jarraitzeko", adierazi du Idoia Buruaga Elorrioko alkateak.

Bestalde, herrian egunero pediatria zerbitzurik ez dagoela-eta, Elorrioko Udalak kezka adierazi du. "Ulertezina egiten zaigu egoera hau hainbeste luzatzea eta Elorriok egunero aurrez aurreko pediatria zerbitzurik ez izatea", kritikatu du Buruagak.



Eskuman, Jesus Aristegi Erorien Haranean. Ur Handitan. EITB

Atxondoko Udalak BI-3336 errepideko lanak azaroan hastea aurreikusten du

Udalak lizitazioa atara ditu Elorriorako errepideko lanak. Enpresa interesdunek urriaren 9ra arte izango dute aukera euren eskaera eta proposamenak aurkezteko

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Atxondoko Udalak lizitazioa atara du BI-3336 errepidea hiri-zeharbidetarako proiektua. Udaletik jakinarazi dutenez, lizitazioaren oinarriko aurrekontua 658.227 eurokoa da eta enpresa interesdunek urriaren 9ra arteko epea izango dute eskabideak eta proposamenak udaletxean aurkezteko.

"Proiektu estrategikoa eta funtsezkoa da udalerrientzat, eta urteetako aldarrikapenen ondorendator", adierazi dute udaleko arduradunek. Gainera, lan horiekin errepidea oinezkoentzat askoz ere atsegina eta seguruagoa izango dela azaldu dute, espaloiekin eta pasabide goratuekin, ibilgailuen abiadura moteltzeko.

Behin enpresek euren eskaerak aurkeztuta eta lanak egingo dituen enpresa aukeratuta, lanak azaroan hastea aurreikusten du Atxondoko Udalak.

Bestalde, Cemosa enpresaren sarbidean hasi eta Bentaberriko baserriraino egingo diren zoladura lanek sei hilabeteko egikaritzepea izango dutela azaldu dute.



BI-3336 errepidean, Atxondo parean, lanak egingo dituzte.

Karmen Amezua berriztarrak zinegotzi kargua utziko du

Eneritz Gorritxategik hartuko du Amezuaren lekukoa

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Berrizko EH Bilduk jakinarazi duenez, aldaketa izango da Berrizko EH Bilduko udal taldean. Instituzioetan 10 urteko ibilbidea egin eta gero, Karmen Amezua Urzelai zinegotzi kargua uztea erabaki du. "Karmen bizitza laboraletik erretiratu berri da eta honegaz bat eginez bere jardun instituzionala ere uztea erabaki du. Baina argi du instituzioetatik kanpora ere


bere militantziak tinko jarraituko duela, bizitza osoan egin duen legez", azaldu dute Berrizko EH Bilduko kideek prentsa ohar baten bitartez.

Gorritxategik lekukoa

Karmen Amezuaren zinegotzi lekua Eneritz Gorritxategi Larizek hartuko du. Eneritz Gorritxategi zinegotzia izan zen aurreko legegintzaldian.



Ezkerretik hasita, Albizuri, Amezua, Gorritxategi eta Olariaga.



“Flipa,

txo...”

Zu ere harrituko zara, edo ez.
Poztu, edo haserretu. Baina ziur
baduzula interesa eta zeresana.
Jakin-mina eta irizpidea duzulako.
Giroan zabiltzalako.

berria

zuk badakizulako

Sugoi taldeak kontzertua eskainiko du Mañarian, umeen minbiziaren kontra antolatuko den jaialdian

Durungaldeko Alakranes del Norte elkarteak hainbat ekimen solidario antolatu du urriaren 2ko zapatarako



Jaialdiko antolatzaile eta babesleak Mañariko plazan.

MAÑARIA • JOSEBA DERTEANO

Azken urteetan, Durungaldeko Alakranes del Norte elkarte burubelarri murgilduta dabil umeen minbiziaren aurkako borrokan. Horretarako, haurren minbiziaren aurkako elkartasun maratoniak antolatu izan dituzte eskualdean. Hurrengo Mañarian izango da, urriaren 2ko zapatuan.

Eguerdian, 12:00etan, haur kategoriako neska-mutikoen pilota partiduak egongo dira. 17:00etan, berriz, ipuin musikatuak eskainiko ditu Zugamek.

Arratsaldean, musika nagusituko da. 18:00etan, Artaburuak taldearen kontzertua hasiko da. Horren ostean, 19:30ean, Elorrioko Sugoi taldearen zuzeneko hasiko da. Aurten 18 urte bete dira Sugoi sortu zenetik.

Jaialdiko beste osagai bat otzara solidarioaren zozketa izango da, 20:00etan. Elkarte, denda eta norbanakoek emandako askotariko produktuekin bete dute otzara.

Jaialdiko osagai bat otzara solidarioaren zozketa izango da: errifak U2 tabernan eskuratu

Errifak Mañariko U2 tabernan eta Durangoko Urtxintxan eskuratu daitezke.

Otzaragaz batutako dirua Aspanovas Bizkaiko minbizidun haurren gurasoen elkarteari emango diote. Ekitaldiko laguntzaileak dira U2 taberna eta Mañariko Udala.



Inausketa lanak Arbizolean.

Industrialdearen ondoko hainbat zuhaitz ebaki edo inausi dute Izurtzan

IZURTZA • J.D.

URA agentziak erreka ondoko zuhaitz batzuk ebaki edo inausi ditu Izurtzako Arbizolea industrialdean. Udalak abisatuta bertaratu ziren, zuhaitz adarrak bideraino irtenda zeudelako eta kamioien joan-etorria zailtzen zutelako. Orduan, zuhaitz batzuk ustelduta zeudela ohartu ziren eta txopo eta pinu bana bota zuten. Beste txopo bi inausi egin dituzte: euretariko bat enbor aldetik moztu dute, lurretik 10 bat metroko garaieratik.

Otxandioko plazako hirugarren eta azken faseko lanak hasi dituzte

Prozedura aurreko fase bietako berdina izango da: lehenengo, indusketak egin eta zoruaren azpian dagoena dokumentatuko dute; ondoren hasiko dira eraberritze lanak

OTXANDIO • J.D.

Astelehenetik martxan daude plaza eraberritzeko azken faseko lanak. Lanek plazaren erdialdeari eragingo diote oraingo honetan. Prozedura aurreko fase bietako berdina da. Lehenengo, datozen bi-hiru hiletan indusketa lanak egingo dituzte, zoruaren azpian antzinako zer arrasto dagoen aztertu eta dokumentatzeko. Ondoren, dena eraberritzen hasiko dira: zoruan harri berria ipiniko dute, harrizko eserlekuak garbituko dituzte... Udalak 320.000 euro ipini ditu azken fasea gauzatzeko; Bizkaiko Aldundiko 187.000 euroko diru laguntza jaso dute.



Fase honetako lanak plazaren erdigunean egiten ari dira.

Gazteei begirako parke berria egingo dute Mallabian, eta aukera biren artean bozkatu daitezke

Aukera biak liburutegian ikusgai egongo dira, egun bitan

MALLABIA • J.D.

Mallabiko Udalak gazteei begirako parke berri bat egingo du. Araztegiaren ondoan dagoen 11.000 metro karratu inguruko zelai bat erosi, eta han skate pista, tirolina eta bestelako osagaiak dituen

parkea egingo dute. Proposamen bi dituzte eta irailaren 30ean eta urriaren 1ean, goizean zein arratsaldean, liburutegian egongo dira ikusgai. Herritarrek aukera bat edo bestea bozkatu ahalko dute, eta ekarpenak ere egin ditzakete.



Parkea egingo duten orubea araztegiaren ondoan dago.

hitz artekalea 23, durango
946 810 776
liburudenda info@hitzliburudenda.com

#salduenak

MIÑAN 1# Ametz Arzallus & Ibrahima Balde (Susa)	AITAREN ETXEA 2# Karmele Jaio (Elkar)	ARROZ UREZ 3# Mikel Antza (Txalaparta)	EURI ZITALARI ESKER 4# Ibvaro Borda (Susa)	BIDASOAN GORA 5# Eneko Aizpurua (Elkar)
--------------------------------------------------------------	----------------------------------------------------	-----------------------------------------------------	---------------------------------------------------------	------------------------------------------------------

Arriko Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 946 201 893
Faxa: 946 816 403

BODEGUILLA

TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

**UDAKO
7. ARGAZKI
LEHIAKETA**

 **anboto**

Eman zure botoa udako argazki lehiaketan

Bozkatu www.anboto.org webgunean
Irailaren 28ra arte

ANTOLATZAILEA

 **anboto**

LAGUNTZAILEAK


databost
informatika & telekomunikazioak


ERRIGORA


Garaiiko
Landetxea

“Taldea bat sortzeko premia ikusten genuen, neska gazteen ahotsa entzunarazteko”

Auskari lurretako Neska* Gazteen Taldeak Emakume Sortzaileen Azoka antolatu du biharko. 20 bat neska gaztek osaturiko taldearen herri mailako aurkezpena izango da

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Ekainean sorturiko lurretako Auskari taldeak gogoz ekin dio ikasturteari. Plazan 40 sortzaile batuko dituen Emakume Sortzaileen Azoka antolatu dute biharko. 11:00etatik 14:30era izango da. Irati Areitio Sopelanak (2001) eta Irene Intxausti Biritxinagak (2001) azaldu dutenez, taldearen jendaurreko aurkezpena izango da. Batzar irekiak antolatzen hasiko dira laster.

Nola sortu da lurretako Auskari taldea?

Irati Areito: Ekainean Iurretan Biri-bilketa Feminista egin ondoren, Durangaldeko neska gazteen taldeekin batzen hasi ginen. Orduan ikusi genuen Iurretan ere neska gazteen talde bat sortzeko beharrezko zegoela. Konturatu ginen herrian ez zegoela neska gazteen talde bat. Topaketa horretan ikusi genuen neska gazteok antzeko arazoak genituela, eta konturatu ginen beharrezko zegoela. Horrela sortu zen ideia, eta gero osatu da taldea.

Irene Intxausti: Talde bat sortzeko premia ikusten genuen, neska gazteen ahotsa entzunarazteko, leku edo arlo gehiagotan presente egoteko eta gure adinari egokituriko formakuntzak eta ekintzak antolatzeke.

Deialdi zabala egin zenuten herrian.

I. A.: Hala da. Herriko neska gazte guztiei zabalduko deialdia egin genuen eta erantzuna itzela izan zen. Gaur egun, 20 bat neska gaztek osatzen dugu Auskari.

Zeintzuk dira taldearen helburu eta erronkak?

I. A.: Ikuspuntu feminista lantzeko lagungarri izan daitekeela uste dugu, eta denon artean neska gazteok ditugun arazoei irtenbidea topatzeko lan egin gura dugu. Izan ditzaketen arazoen aurrean, herriko neska gazteei babes eta sostengua ematea da helburua. Herrian babestuta sentitzeko edo dena delako egoera bat salatzeke, adibidez.

Neska gazteak saretzea eta antolatzea premiazkoa ikusi duzue?

I. A.: Bai, dudarik barik.

I. I.: Biribilketa Feministak hainbat

herriko neska gazteen taldeak elkartu zituen, eta Iurretan premia hori genuela ikusi genuen.

I. A.: Biribilketak Durangaldean saretu gintuen. Bada, saretze hori herrietara eraman behar genuela pentsatu genuen.

Zein esparrutan lan egin gura duzue?

I. A.: Bidea eginen hasi gara. Hala ere, badaude data batzuk azpimarratu gura ditugunak: Martxoak 8, azaroak 25, herriko jaiak, ekainak 28.... data horietan ekintzak antolatu gura ditugu, ikusgai egon. Abiapuntu bat da hori. Apurka-apurka bidea eginen joango gara.

Baterajotzearen Durangaldeko aurkezpena ere egingo duzue gaur.

I. I.: Euskal Herrian neska gazteok egingo dugun topaketa da Baterajotzea. Formakuntza tailerrak antolatuko ditugu eta elkartru-

kerako aukera izango dugu. Elkarrengandik ikasteko aukera ere bai. Elizondon (Nafarroa) izango da, urriaren 8tik 10era. Baterajotzerako prestatutako bideoak eta abestia ere aurkeztuko ditugu Abadetxeke aurkezpenean, 19:15ean. Gero, kontzertua egingo da.

I. A.: Hausnartzeko, ikasteko eta gozatzeko jardunaldia izango da. Euskal Herriko neska gazteen talde guztiak elkartzeko eguna. Ekitaldia aurkeztu, eta parte hartzerak animatuko ditugu neska gazteak.



Ekzerretik hasita, Leire Etxano, Udane Azkorbebeitia, Irati Areitio, Maitane Totorika eta Irene Intxausti.

Mugarriz Mugarri lurreta egingo dute, Zaldaik antolatuta

Iurretak Abadiñogaz eta Garaigaz dituen mugak ezagutzeko aukera egongo da domekan, Zaldai mendiko taldearen eskutik

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Zaldai mendiko taldeak antolatuta, II. Mugarriz Mugarri lurreta ibilaldia egingo dute domekan, Iurretan. Zaldai mendiko zortzi kilometroko ibilbidea prestatu dute, lurreta herriko Abadiñogaz eta Garaigaz dituen mugak ezagutzeko aukera eskaintzeko. Aita San Migel plazan egin dute hitzordua, 09:30ean.

Parte hartzea doakoa izango da. Hala ere, aurrez izena eman behar-

ko da. Halaxe azaldu dute Zaldai mendiko taldekoek. Horretarako, www.zaldai.eus atarian sartu daiteke. Dena dela, egunean bertan ere egongo da aukera, 09:00etan, plazan. Zaldai mendiko taldeko Mugarriz Mugarri lurreta ekitaldia antolatzen duen bigarren aldia da. Orain urte bi, Iurretak Durangogaz dituen mugak ezagutzeko aukera izan zuten 10 kilometroko ibilbidea egin zuten herritarrek.

Jauretxe eta 'Ximist' garaile Garain eginiko txapelketan

GARAI • A. M.

Asteburuan, Euskal Herriko Artzain Txakur Txapelketa jokatu da Garain. 357 puntu eskuratuta, Roger Jauretxe baigorriarrak irabazi zuen txapelketa, 'Ximist' txakurragaz. Bigarren postuan Michele Atxeritogarai iholdiarra eta 'Izar' txakurra sailkatu ziren, 348 puntu eskuratuta, eta hirugarren Fidel Alonso arabarra eta 'Bat' txakurra, 343 puntugaz.

Garain jokaturiko txapelketan Durangaldeko Karlos Ardan-

za abadiñarra eta 'Mendi' txakurra ere izan ziren. Abadiñarrak zazpigarren postua lortu zuen.

Oñatira sailkatuak

Irailaren 26an, Nazioarteko Txapelketa jokatu da Oñatin (Gipuzkoa); bertan, Jauretxe 'Ximist', Fidel Alonsoren 'Bat' eta Aitor Tatoren 'Nabar' txakurrak lehiatu dira, besteak beste.



Jauretxe eta 'Ximist' antolatzaileekin.

GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ

Seguros Bilbao

RUEDA BILBAO ASEGURUAK
Jabier Rueda

Landako etorbidea, 1 DURANGO
Tel.: 946 202 710 - Faxe: 946 816 577
jrueda@segurosbilbao.com

"La Palma kaosa da une honetan"

Naroa Urien EITBko berriemaile berezi lez dago Kanaria uharteetako La Palman. Cumbre Vieja sumendia piztu zenean Tenerifin zengoen Urien eta La Palmara bidali zuten



Naroa Urien abadiñarra sumendiaren aurrean.

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR
Joan zen domekan, Kanaria uharteetako La Palman Cumbre Vieja sumendia piztu zen. Bertan da Naroa Urien abadiñarra, EITBko berriemaile berezi lez.

Domeka arratsaldean piztu zen erupzioa sumendian. Zu non zeunden une hartan?

Tenerifin (Kanaria uharteak) nengoen, autobusean aireportura bidean, etxera bueltatzeko. Ahizpagaz batera Tenerifera joan nintzen oporretan, egun batzuk pasatzera. Barikutik La Palman lurrikarak zeudela entzuten genuen, eta gura barik ere, sumendian gertatzen zebilenari adi nengoen. Badakizu, kazetariok horrelakoak gara.

Autobusean gindoazela, jendea garrasika hasi zen, "erupzioa,

erupzioa!". Orduantxe, lankideak ea zer giro genuen galdetzen hasi zitzaizkidan, eta, horren ostean, lanetik deitu zidaten. La Palmara joatea proposatu zidaten. Hegaldia aldatu, hotel bat hartu eta ordutik nago hemen.

Zer aurkitu duzu hor?

Hau izugarria da. Alde batetik, ikusgarria da sumendi bat bertatik bertara ikustea. Seguruenik, nire bizitzan ez dut berriro horrelakorik ikusiko. Baina, beste alde batetik, La Palma kaosa da une honetan. Hotelera heldu ginenean, jendearen sufrimendua ikusi genuen, mundu guztia alde batetik bestera korrika, arduruta. Benetan egoera gogorra bizitzan dabil jendea, eta kazetari lez hau bizitzea ikaragarria da.

Imajinatzen dut lehenengo aldia izango dela horrelako hondamendi natural baten berri ematen duzula.

Bai, sekula ere ez dut horrelakorik bizi izan. 22 urte baino ez ditut, eta urtebete pasatxo daromat lanean. Niretzat La Palmara etorri ahal izatea izugarria da,

hemen egotea, zer gertatuko den ere ez jakitea, saltsan egotea, 24 orduz, kazetari lez aritzea. Gainera, lehenengoz bidali naute berriemaile berezi lanetan.

Oso egoera gogorren lekuko izaten ari zara.

Horixe da kazetaritzaren alderik gatxena. Bertako jendearen lekuan jartzen naiz eta hau oso gogorra da. Hori bai, aitortu behar dut harrিতuta nagoela Kanarietako jendeagaz. Oso jende solidarioa da. Ikaragarri laguntzen diote elkarri, eta bizipen hori ere neugaz eramango dut Euskal Herrira.

Sentitu duzu beldurrik?

Aurkitu genuen lehenengo hotelan hartu genuen ostatu. Leku seguruan dagoela esaten digute, baina ikusten dugu geroago eta erupzio-aho gehiagok irtetzen dutela sumenditik. Gainera, lurrikarak daude, egunez zein gauez, eta baita zaratak ere. Horrek urduritasun puntu bat sortzen dizu, eta tentsio-egoera bizi duzu une oro.

Magia ikuskizuna Berbalagunari hasiera emateko

Mintzalagun egitasmoaren ikasturteari hasiera emateko ekitaldia egingo dute zapatuan, liburutegi zaharrea

ZALDIBAR • A.M.

Zaldibarko Berbalagunaren arabea, ikasturte berria "bereziki bizi, garrantzitsu eta gogotsu" dator. "Betikora bueltatzeko gogoz gaude, taldekideekin berriro elkartzeko eta Mintzapoza elkarregaz praktikatzeko. Horixe da gure egitasmoaren oinarria: Mintzapoza. Mintzapoza sortzen digu astero elkartzeak, euskaraz lasai eta eroso aritzeko aukera izateak akatsak egiteko beldurrik barik edo euskara praktikatu gura dugunok astero elkartzeko prest dagoen Bidelagun

bat izateak", azaldu dute ohar baten bitartez Zaldibarko Berbalagunetik. Horretarako, magia ikuskizuna antolatu dute; 17:00etan izango da, liburutegi zaharrea. Egun, hiru talde ditu martxan Zaldibarko Berbalagunak; Euskal Herrian, guztira, 6.800 lagun baten dira astero-astero. Berbalagun ekimenean parte hartzeko izena emateko, zaldibarkoberbalaguna@gmail.com helbidera idatzi daiteke, 688722989 telefono zenbakira deitu, edo udaletxera eta liburutegira joan.



Zaldibarko herrigunea.

www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa
www.bertsosarrerak.eus

BIZKAIKO

BERTSOLARI TXAPELKETA

20-21 KANPORAKETA

URRIAK 3

DURANGO

SAN AGUSTIN KULTURGUNEA. 17:00

Ander Elortegi Garatea, Asier Galarza Garai, Beñat Bilbao Landa, Ibon Ajuriagojeaskoa Garmendia, Inazio Vidal Gurrutxaga eta Iruri Altzerreka Martinez.

Antolatzailea Babesleak Laguntzailea

Gerediagak 5 ekitaldiko egitaraua prestatu du Ondarearen Europako Jardunaldietarako

Aforoa mugatua izango da; beraz, parte hartu gura duenak hitzordua hartu beharko du



Gerediaga elkartek jardunaldiak antolatu ditu.

DURANGALDEA • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Ondarearen Europako Jardunaldietara begira, Gerediagak egitarau bat diseinatu du Durangaldeko bost herritarako, urrirako. Jardunaldiok Garain, Zaldibarren, Berrizen, Mañarian eta Iurretan egingo dituzte.

Lehenengo ekitaldia Garain izango da, urriaren 2an eta 3an. Bertan, argazki bilketa eta erakusketa egingo dituzte, eta garaitarrei dei zabala egingo diete herriko bizimodu, ohitura eta lekuen argazki zaharrak izanez gero erakusketan

erakusteko. Bestalde, urriaren 16an bisita gidatua eta kontzertua egingo dituzte Angurreta harrobian, eta urriaren 16an eta 17an erakusketa eta berbaldia Iurretan. Urriaren 22an berbaldi bat egongo da Zaldibarren, eta urriaren 23an

Ekitaldiak Garain, Zaldibarren, Berrizen, Mañarian eta Iurretan egingo dituzte, urrian

Myriam Cepedaren eta Luis Alberto Requejoren kontzertua Berrizen.

Aforoa mugatua izango da; beraz, parte hartu gura duenak ejardunaldiak@gmail.com helbidera idatzi edo 673 005 981 telefono zenbakira deitu beharko du.

Politikan

Mireia Elkoriribe
Zenikaonandia
EAJ



Garai berriak ere erantzukizunetz eta zuhurtziaz

Durangon azken asteetan gertatutakoaren ondoren, eta kontuan hartuta aste gutxi barru San Fausto jaiak kultur jarduerengatik ordezkaturako direla, ezinbestekoa dugu arduraz eta zuhurtziaz jokatzea, egoera pandemiakoak hobera egin duen arren, oraindik momentu honetan dauden neurriak bete behar ditugu denon artean normaltasunera itzultzeko.

Erantzukizun- eta gizalege-mezu argia bidali behar diegu herritarrei

Udalek dituzten eskumenak kontuan izanda, adibidez espazio publikoak zaindu eta mantentzea, bizikidetzaharremnaren antolatzea eta kudeatzea, edo osasun publikoa babestea, besteak beste, beharrezkoa da neurriak ondo pentsatzea eta adostea. Hori dela eta, EAJ-PNVtik moztu bat aurkeztu genuen, gobernu-taldeari neurriak hartzeko eta beste alde batera ez begiratzeko eskatuz. Garaiz gabilza neurriak lantzeko eta adosteko, dekretuz egokiak ez diren erabakiak hartu gabe, eta gu horretarako prest gaude.

Hainbat gauza egin beharko dira, hala nola ordutegien kontrola ezartzea, kaleen garbitasuna indartzea eta hainbat neurri zehatz adostea. Laburbilduz, kudeatu eta erabakiak hartu behar dira.

Eta, horretaz guztiaz gain, erantzukizun- eta gizalege-mezu argia bidali behar diegu herritarrei, guztion arteko bizikidetzak baketsua eta osasuntsua lortzeko eta erantzukizunetz eta zuhurtziaz jokatzeko.

Durangaldea asteen

Galdakaon egiten ziren probak Gernikara bideratzen hasi direla salatu du EH Bilduk

Durango | Durangoko EH Bilduk salatu duenez, Galdakaon egiten ziren proba diagnostikoak Gernikako ospitalera bideratzen hasi dira, eta hori beste "injustizia" bat da. "Gernikara bideratzeak, distantzia gehiago egitera behartzeaz gain, garrario publikoan joatea ere zailtzen digu, Durangotik ez dago-eta garrario publiko zuzenik", kritikatu dute.

Jesús María Corman artistaren Melancholia argazki erakusketa ikusgai dago Elorriean

Elorrio | Elorriko Udalak, BBK gizarte lanagaz elkarlanean, Jesús María Corman artistaren Melancholia argazki erakusketa du erakusgai urriaren 2ra arte. Margolari, narratzaile, musika letragile eta poeta pasaitarraren erakusketa doan bisitatu ahal izango da, 9:30etik 20:00etara bitartean.

Berrizko Udaleko kultura arloak txistu eta zeramika ikastaroak antolatu ditu

Berriz | Berrizko Udalak txistu eta zeramika ikastaroak eskainiko ditu. Udaletik jakinarazi dutenez, ikastaroak talde txikitan emango dituzte, 6 lagunekoetan, eta horietan gutxienez hiru berriak izan beharko dira. Izen-ematea dagoeneko zabalik dago eta urriaren 1a baino lehenago egin beharko da kultura@berriz.eus helbidera idatzita edo 94 682 78 60 telefono zenbakira deituta.



Euskal Herrian Euskarazek manifestazio nazionala egingo du Durangon, abenduaren 6an

Durango | Euskal Herrian Euskarazek manifestazio nazionala egingo du Durangon, abenduaren 6an; 17:30ean hasiko da, Landako Gunetik. "Euskararen Errepublikan independentea eskuratu behar du ezinbestean, Euskal Herri euskalduna eraiki ahal izateko", azaldu zuten zapatu goizean eginiko agerraldian.

Bestalde, mobilizazioarekiko atxikimendua adierazteko, sare sozialetan [#EuskararenErrepublika](https://twitter.com/EuskararenErrepublika) traola erabiltzeko deia ere egin dute.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - IURRETA • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarteak barne).

DURANGALDEAN ESTETIKAREKIN,

ZERIKUSIA DUEN NEGOZIORIK BADUZU,

JARRI EZAZU ZURE IRAGARKIA ANBOTON

Informazio gehiago **94 621 79 02** telefono zenbakian

BURUARI KLIK!



MATEMATIKA

Egin eragiketa hauek beheko etxetxoek duten zenbakia kontuan hartuz.



= 6



= 4



= 7



= 2



+



-



=



-



+



=



-





x



=












LABIRINTOIA



MARGOTU

Margotu beheko irudia zenbaki bakoitzari dagokion kolorea errespetatuz.



- | | | | | | | | | | |
|---|-------------------------------------------------------------------------------------|---|-------------------------------------------------------------------------------------|---|---------------------------------------------------------------------------------------|---|---------------------------------------------------------------------------------------|---|---------------------------------------------------------------------------------------|
| 1 |  | 2 |  | 3 |  | 4 |  | 5 |  |
| | | 6 |  | 7 |  | 8 |  | | |

Durangaldeko azken albisteak jaso gura dituzu?

Batu Anbotoko whatsapp taldera



Bidali alta
688 635 041
telefono zenbakira

*** Izan zaitez berriemaile ere.**
Bidali zure argazki eta bideoak

anboto



'Uniko'

ANTZERKIA **ELORRIO** :: Irailak 26

Jelosiaz hausnartzeko tartea, Teatro Paraisoren eskutik

Paul seme bakarra da, bere etxeko erregea. Baina egun batetik bestera dena aldatuko da eurenean. Irati arreberen jaiotzaren ondorioz, aurrerantzean maitatua izango ez den beldur da. Horrek familiaren egonkortasuna mehatxatuko du. Horixe du ardatz Teatro Paraisoren *Uniko* antzezlanak. Txotxongiloen teknika eta antzerki erre-

lista uztartuz, jeloskortasuna du berba *Uniko*. Teatro Paraiso konpainiako kideek gaiari bere gordintasunean helduko diote, beti ere umorea galdu barik.

Sei urtetik gorako publikoari zuzenduriko ikuskizuna da *Uniko* eta Arriola antzokian egongo da ikusgai, datorren domekan, hilak 26, 17:00etan.

Irailaren 24an

BERRIZ zirkua
'Bidearen amaieran' (Hortzmuga konpainia), 18:30ean, eskolako patioan.

DURANGO musika
Organo kontzertua: Ignacio Arakistain, Victor Perea eta Oscar Rodriguez Musikeneko organo ikasleak, 20:15ean, Andra Mariko basilikan.

ELORRIO dantza
'Kenofobia' (Osa + Mujika), 19:00etan, Arriola antzokian.

ZALDIBAR bertsoak
Bertso jaialdia: Miren Amuriza eta Aitor Mendiluze, 19:00etan, udaletxeko plazan. Gai jartzailea: Maite Berriozabal. Euria eginez gero, eskolako pilotalekuan izango da emanaldia.

Irailaren 25ean

DURANGO zirkua
'Zirkus' (Malas Compañías), 17:00etan, Murueta Torre auzoan. Euria eginez gero, Landako Gunean.

DURANGO antzerkia
'Las Dostoyevski' (Gurutze Beitia eta Maribel Salasen), 19:00etan, San Agustín kulturgunean.

DURANGO bertsoak
Bertso jaialdia: Nerea Ibarzabal, Miren Amuriza, Leire Vargas eta Iruri Altzerreka, 19:30ean, Benita Uribarrena parkean. Gai jartzailea: Oihana Arana.

IURRETA azoka
Emakume sortzaileen azoka, 11:00etatik 14:30era, Aita San Migel plazan.

IURRETA musika
Puro Relajo, 19:30ean, Askondoko karpan.

IURRETA antzerkia
'Izarreko lore' Joseba Sarrionandiaren 'Gau ilunekoak' liburuan oinarrituriko ume antzerki estreinadia (4 urtetik aurrera, familian ikusteko), 20:00etan, Aita San Migel plazan.

ZORNOTZA musika
'Ipuin dantza' (Oihan Vega), 18:00etan, Zornotza Aretoan.

ZORNOTZA musika
Patricia Kraus, 19:30ean, Larreako San Juan Bautista elizan. Eleizetan 2021 egitarauaren barruan.

ZORNOTZA musika
XX. Txistulari Eguna. Txistularien kalejira, herriko hainbat kaletan zehar, 17:00etan eta 18:00etan.

Irailaren 26an

DURANGO ikuskizuna
'Piztu' (Eidabe konpainia), 17:00etan, Tabira auzoan.

IURRETA ibilaldia
'Mugarri Mugari', mendi ibilaldia, 09:30ean, plazatik irtenda. Zaldai Mendi Taldeak antolatuta.

IURRETA musika
Amak, 18:00etan, Aita San Migel plazan.

ZORNOTZA musika
Kendra, 19:00etan, Duedeako San Migel elizan. Eleizetan 2021 egitarauaren barruan eskainitako kontzertua.

Irailaren 28an

IURRETA musika
Iurretako dantzariak, 18:30ean, Aita San Migel plazan.
Kontzertua: Txalainak, 20:00etan, plazan.

Irailaren 29an

IURRETA zirkua
Iurretako dantzariak, 12:30ean, Aita San Migel plazan.
Udako zirkua Malas Companies konpainiaren eskutik, 17:00etan.

Urriaren 1ean

IURRETA antzerkia
'Miss Spein' (Aroa Blanco eta Aitor Arabiourrutia), 19:00etan, Askondon.
Bertsolariak: Maialen Lujanbio, Amets Arzallus, Gorka Pagonabarrena, Erika Lagoma, Jone Uria eta Jon Maia, 20:00etan, Aita San plazan. Gai jartzailea: Maite Berriozabal.

Urriaren 3ra bitartean

DURANGO erakusketa
'Zer nahi duzu nitaz? Igel urdin bat besterik ez naiz', Arte eta Historia Museon.

Zinema

:: Durango ZUGAZA

• **Maixabel**
barikua 24: 19:30/22:00
zapateria 25: 18:00/20:30
domeka 26: 17:00/19:30
astelehena 27: 17:45/20:15
martitzena 28: 17:45/20:15
eguztzena 29: 17:45/20:15

• **No respites 2**
barikua 24: 19:30/22:00
zapateria 25: 17:30/19:45/22:00
domeka 26: 18:00/20:15
astelehena 27: 18:00/20:15
martitzena 28: 18:00/20:15
eguztzena 29: 18:00/20:15

• **Cry Macho**
barikua 24: 19:30/22:00
zapateria 25: 17:30/19:45/22:00
domeka 26: 18:00/20:15
astelehena 27: 18:00/20:15
martitzena 28: 18:00/20:15
eguztzena 29: 18:00/20:15

:: Elorrio ARRIOLA

• **Tres veranos**
zapateria 25: 20:00
domeka 26: 20:00
astelehena 27: 20:00

:: Zornotza ARETOA

• **Maixabel**
barikua 24: 20:00
zapateria 25: 21:00
domeka 26: 17:00/20:00
astelehena 27: 20:00



**EKI
NTZ
AK**

2021
2022

biblioteka

IZEN-EMATEA: irailak 15-24 erroldatuak · 22-24 ez erroldatuak

Plaza mugatiak · Doakoak
Bibliotekan, H.A.Z.-en edo e-postaz:
bibliotekakoekintzak@iurreta.eus



“Abesti guztiak berdinak direnean diskoek esentzia galtzen dute”

Insömnia talde durangarrak 'Lo eza' diskoa kaleratu du; urriaren 9an aurkeztuko dute, Arte eta Historia Museoa



MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Insömnia talde durangarrak 'Lo eza' diskoa kaleratu du oraintsu. Amaur Azkaratek eta Oier Palomok ipini zuten martxan proiektua. Ondoren, Olga Costa pianista eta Oier de Pedro bateria-jotzailea batu ziren, eta guztien artean grabatu dute euren lehenengo diskoa izan dena, TAOM estudioan. Askotariko abestiak batu dituzte lehenengo lan honetan, eta orain, entsegu lokal berrian elkarregaz entseatzeko hasi direla baliatuta, euren soinu propioaren bila jarraituko dute.

Taldearen lehenengo pausoak pandemia betearen izan zirela entzun dut. Amaur Azkarate: Nik betidanik

abestu izan dut. Konposatu ere bai, baina inoiz ere ez naiz ausartu nire abesti horiek kaleratzera. COVIDaren eraginez, hile bi eta erdian logelatik irten barik egon behar izan nuen; abestiak sortzeari ekin nion, itxialdia eramangarriago egiteko. Gero, mezu bat ipini nuen sare sozialetan, gitarrista bila nabilela esateko. Oierrek erantzun zuen.

O.P.: Nik ere etxean egon behar izan nuen hilabetez. Sare sozialetan mezua ikusi, eta elkar ikusteko esan nion Amaurri. Gero, Olga eta Oier batu ziren taldera. Nire lehengusina da Olga, eta laguna Oier.

A.A.: Nik abesti pila egin dut

etxean, baina talde bat osatzea gura nuen. Ez nuen bakarkako proiektu bat sortu gura.

O.P.: Hori abenduan izan zen. Apurka-apurka, baina lan asko egin dugu, eta oraindik ere gauza asko dugu buruan, eta gogotsu gaude horiek egiteko.

Zelan konpondu zarete lanerako orduan?

O.P.: Berez, Amaiurrek abesti guztietako ahotsak eta gitarrak prest zituen. Nik zirriborro horiek hartu eta zer moldatu zitekeen ikusten nuen. Taldekide bakoitzak bere proposamenak egin ditu gero.

A.A.: Asko kostatzen zaigu elkarrekin, bakoitzak bere ordutegia du eta. COVID garai honetan, are oke-

rragoa da. Baina elkartzeko lortzen dugunean, oso gustura egoten gara lanean.

Olga Costa: Orain arte ez dugu entsegu lokalik eduki, eta ahal izan dugun moduan lan egin dugu. Baina orain badugu lokala. Orain artean behintzat, oso ondo konpondu gara.

Ibilbide laburrean diskoa grabatzea lortu duzue, eta elkarregaz soinu polita ateratzea.

O.P.: Esango nuke horrek egiten duela diskoa berezi. Ni ekoizlea naiz ogibidez, denerik entzuten dut lanean, hainbat estiloz lan egin behar dudalako. Gurera ekarrita, gure abestiek horrelako soinua izatea hobea dela uste dugu.

A.A.: Abesti guztiak berdinak direnean diskoek esentzia galtzen dutela uste dugu. Gure diskoan, abesti guztiek dute bere zera hori; batzuk rockeroagoak dira, eta beste batzuk dantzagarriagoak. Doinuak lotuta doaz abestien berberkin. Aurreiritziei buruzko hitz batzuk ditugu abesti batean, eta baita bestelako errealitatei buruzkoak ere. Gustatzen zaigu eskemak apurtzea.

“**Etxean abesti pila sortzen dut, baina ez naiz inoiz ere ausartu abesti horiek kaleratzera**”

Non grabatu duzue diskoa?

O.P.: Gaur egungo baliabideekin errazagoa da. Sintetizadoreak eta programazioa nire etxean egin ditugu. Ahotsak, gitarrak, teklatuak eta bateria, ostera, TAOM estudioan grabatu ditugu; han lan egiten dut nik, Jagoba Ormaetxeagaz batera.

Kontzertuak emateko gogotsu?

A.A.: Onartu beharra dut bertigo handia ematen didala. Azken finean, nire barne mundua zabaltzen nabil kanta hauen bitartez, eta ez da erraza niretzat. Baina, aldi berean, oso emozionatuta nago. Hainbatek idatzi didate, gure kantekin identifikatuta sentitu direla esateko.

O.P.: Urriaren 9an kontzertua eskainiko dugu Durangon, Arte eta Historia Museoa, Amaia Lejarreta margolari durangarragaz batera.

Zeintzuk dira hurrengo pausoak?

O.P.: Gauzak prestatzen gabiltza. Epe laburrean lan txiki bat ateratzeko asmoa dugu, baina oraindik ez dakigu noiz.

O.C.: Durangoko Azokan erakusmahai ipiniko dugu, autoekoizpenen txokoa.

Bestela, non erosi daiteke diskoa?

O.P.: Oraingoz, gugaz hartu-emanetan ipinita erosi daiteke.

urtxintxa
jostailu denda

Jolasten ikastea errazagoa delako

Andra Mari kalea 9 - 94 400 39 69

clínicadental hartzklinika
b. unamunzaga e. etxebarria

Dakizuenek, betidanik izan gara adituak esterilizazioan. Orain, inoiz baino gehiago, den-dena prestatu dugu zuen segurtasunerako

{ Muruetatorre, 2C blokea, behea - 48200 Durango }

Tel.: 946 819 951 - Mug.: 717 194 454 - uecdental@gmail.com

RPS 145-13

Durangaldeko zortzi bertsolarik parte hartuko dute Bizkaiko Txapelketan

Urriaren 3an hasiko da txapelketa, Durangon; finala abenduaren 18an izango da, Bilbon



Aitor Bizkarra eta Miren Amuriza, 2018ko Bizkaiko Txapelketako saio batean.

BERTSOLARITZA • A.M.

Osasun egoeraren ondorioz urtebeteko atzerapenagaz bada ere, aurten Bizkaiko Bertsolari Txapelketa jokatu da; martitzenean aurkeztu zuten txapelketa. Urriaren 3an hasiko da kanporaketa fasea, Durangon. Lehenengo faseak sei saio izango ditu. Bertan abestuko dute Iruri Altzerrekak, Gorka Pagonabarraigak, Txaber Altubek, Garikoitz Sarriugartek eta Igor Galarzak. Kanporaketa horietariko beste bat Elorrion izango da. Sei kanporaketetako irabazleak eta

puntuaziorik onena lortu duten lau bertsolariak sailkatuko dira hurrengo fasera.

Gaur, barikua, bertso saioa egongo da Zaldibarren; eta bihar, zapatua, Durangon

Finalurrekoetan, Miren Amurizak, Aitor Bizkarrak eta Eneko Abasolo 'Abarkas'-ek abestuko dute; 2018ko txapelketan finalista izateagaitik dute zuzeneko txar-

tela finalurrekoetarako. Hiru finalurreko egongo dira, eta horietako irabazleek eta puntuaziorik onena lortu duten gainerako bost bertsolariek lortuko dute finaleko txartela. Finala abenduaren 18an jokatu da, Bilbao Arenan. Lehenengo saioetako sarrerak dagoeneko salgai daude, www.bertsosarrerak.eus atarian.

Durangon eta Zaldibarren Durangaldean bertso saio bi egongo dira asteburuan. Lehenengoa gaur, barikua, Zaldibarren; bestea zapatuan izango da, Durangon.

Euskal kultura musikalaria buruzko tailerra Durangon

Ander Erzilla irakasle durangarrak eskainiko du ikastaroa, eta urrian hasiko da; klaseak eguenean izango dira, 20:00etan, eta parte bi izango dituzte. Lehenengo partean zenbait piezaren azterketa teorikoan (forma, estiloa, testua, armonia) oinarrituko dira, eta bigarrenan parte hartzaile guztien artean piezak abestuko dituzte.

MUSIKA • J.G

Ikasturte honetan, Durangoko Bartolome Ertzilla kontserbatorio eta musika eskolak *Euskal kantutegia XX. Mendeko kantagintzan* tailer berria eskainiko du. Ander Erzilla irakasle durangarrak eskainiko du ikastaroa. "Euskal kultura musikala transmititzea izango da ikastaroaren helburua, ondare hori ikuspuntu praktiko eta teorikotik hurbilduz", azaldu dute Durangoko Udaletik ohar baten bitartez. Klaseak eguene-

tan izango dira, 20:00etan, eta parte bi izango dituzte. Lehenengo partean zenbait piezaren azterketa teorikoan (forma, estiloa, testua, armonia) oinarrituko dira, eta bigarrenan parte hartzaile guztien artean piezak abestuko dituzte.

Bestalde, urriaren 9an hasiko da Ana Celia Ormaetxearen berbaldi musikalen 25. edizioa. Aurten, hitzaldi presentzialez gainera, streaming bidez ere eskainiko dituzte.



Bartolome Ertzillako irakasleak udal ordezkariekin.

Gai librea

Ondare barneratzailea

Bazen behin zinegotzi bat. Esan ziotenean herriko kale bakarrak zuela emakume izena, erraz topatu zion konponbidea: Don Tello kaleari Don Tello y Señora deitzea proposatu zuen. Adibidea baino ez. Baina esanguratsua. Ez da ipuin bat. Ipuin tragikoa akaso. Hamabost bat urte joan dira hartatik eta gaur egun begibistakoa egiten zaigu hori ez dela genero ikuspegia udal politiketan txertatzea.

Eskubide berdintasunerako bide horretan, alor asko jorratu behar dira: emakume eta gizonen arteko aipatu dugu, baina eskubide murriztagoak dituzte baita herritar estandarren estereotipotik aldentzen direnak ere arraza dela-eta, jatorria, aukera sexual edo afektiboa, gaitasun funtzional edo psikikoa, maila ekonomikoa, egoera zibila, familia eredia, formazio-maila, erlijioa, adina edota itxura fisikoa. Batzuk aipatzearen.



Josune Aranguren Zatika
Filosofoa

Zer pentsatua ematen du aurtengo Ondarearen Europako Jardunaldien egitarauak. Bizkaikoaz arituko naiz, larriagoak ikusi baditut ere. Ondare irisgarri eta inklusiboa da antolatzaileoi agindu zaigun aurtengo gaia. 214 ekitaldi gure lurraldeko katalogoan. LGTBI kolektiboaren historian zeharreko ibilaldia, Txinako pertsonak bitxigintza tailerra, itsuentzako egokitutako bisita, zeinu hizkuntza bidezko azalpenak... Emanaldiak, kontzertuak, erakusketak edo bisitetako 214tik 90, aldarrikapen edo zailtasuna duten kolektiboetara zuzenduta daude. Kolektibo horiek publikotzat hartuta, beraz.

Adibidez, anekdota gisa hartzen dugu artea eta historia diskurtsoa duen bisita gidatu bat aniztasun intelektualekoei zuzendutakoa bada. Behin egiteko zerbaite, ia zelan, aproba modura, kategoriarik gabekoa eta irauteko borondate barik. Gogoeta sakonetan sartzeko nagi

gara, kolokan jartzen digulako artearen edo historiaren kontzeptua bera. Ondarearen kontzeptua bera. Pertsona horiek ez dira gure kultur eskaintzaren helburu. Eta bihar biharkoak.

Gure gizartearen eraikineko zutabeek oinarri sendoak dituzte. Bata elitista da, horko hori androzentrista, beste bat eurozentrista... Eraldaketa lortzeko zutabeak ukitu behar dira, Gu eta haiek planteamendua baztertzailerak baita. Ondarearen kontzeptua berriztatzea premiazkoa da, ondarea barneratzaile egingo badugu.

Behintzat zerbitzu publikoan ari garenok gerribueta malgutu behar dugu, eredu izatea baitagokigu. Eta gaitzekerok ere bai, ustezko ongizatea zalantzan jartzera etorri den sasoi honek hala eskatzen digu-eta. Ondare kontzeptua eraldatetik gizarte barneratzaile. Hori erronka.

<https://josunearanguren.blogspot.com/>

Ardanza brontzeko domina bategaz eta Azkorbebeitia bigaz bueltatu dira munduko sokatira txapelketatik

Abadiño sokatira taldeko kideak Laukizko Gaztedi taldeagaz eta Erandioko Goierriagaz ibili dira Munduko Txapelketan



Julen Ardanza sokan. LUR GIL

SOKATIRA • J.D./M.Z.

Joan den astean, lur gaineko Munduko Sokatira Txapelketa jokatu zen Getxon. Bertan Abadiño sokatira taldeko kide bi izan ziren: Julen Ardanza eta Martxel Azkorbebeitia. Abadiñarrak brontzeko hiru dominagaz bueltatu ziren herrira. Ardanza Laukizko Gaztedi taldeagaz lehiatu zen eta brontzeko domina bat eskuratu zuen. Azkorbebeitia Erandioko Goierri B taldeagaz

ibili zen eta brontzeko domina bi lortu zituen.

Ardanza oso pozik dago Gaztedik Munduko Txapelketan lorturiko emaitzagaz. "Balorazioa oso ona da. Klub moduan Gaztedik urrezko domina bi eta brontzeko bat atera ditu eta selekzio moduan ere, Gaztediko tiralariak aritu ginen, Euskal Herriaren izenean. Eta hor ere urrezko domina bi lortu ziren, bata gizonezkoetan eta bestea emakumezkoetan", adierazi du Julen



Julen Ardanza eta Gaztedi taldeko kideak.

Ardanza abadiñarrak. Bestalde, Martxel Azkorbebeitia gaztea "oso ondo" ikusi duela adierazi du Ardanzak. Abadiño sokatira taldeko gazteak brontzeko domina bi eskuratu ditu Erandioko Goierri B taldeagaz.

Julen Ardanzak esan du Martxel Azkorbebeitia gaztea "oso ondo" ikusi duela

Ardanza sokara bueltan

Getxon jokaturikoa ez da izan Ardanza lehengo lur gaineko Munduko Sokatira Txapelketa. 2014an, Estatu Batuetan jokatu zen Munduko Txapelketan egon zen abadiñarra eta urrezko domina bat eta brontzeko beste bat eskuratu zituen. Baina harrezkero urte dezente egin ditu sokan tiratu barik. "Urte askoan tiratu barik egon naiz, baina aurten berriro ere martxa hartu dut", esan du. Hala ere, lur gainekoagaz seguruenik ez duela jarraituko azaldu du. "Hainbaten utzi egingo dut lur gainekoa. Hau oso gogorra da, azkenean entrenatzera joateko hainbat kilometro egin behar dut, beharrez txandak aldatu behar ditut... Beraz, hemendik aurrera, Abadiño sokatira taldeari ahal dudanez neurrian laguntzen arituko naiz", adierazi du Ardanzak.

Oihana Azkorbebeitia bigarren Grigne Skymarathon mendiko lasterketan, Italian

ABADIÑO • M.Z.

Joan zen domekan, Skyrace World Series Munduko Kopako bederatzigarren proba puntuagarria jokatu zen, Italian. Oihana Azkorbebeitia abadiñarra bertan izan zen eta bigarren postua lortu zuen.

Italian lorturiko bigarren postuari eskerrak, eta lau probatan parte hartuta, Azkorbebeitia bigarren dago orain Skyrunner Munduko Kopako sailkapen nagusian, 284 puntugaz. Munduko Kopako hurrengo lasterketa domeka honetan jokatu da, Zeanurin: Gorbeia Suzien lasterketa.



Oihana Azkorbebeitia semeekin helmugaratzen. MARCO PUGLIESE

Elorrioko Bira egingo dute asteburuan, ibilbide bigaz

Antolatzaileek jakinarazi dute irailaren 24ko barikuko 19:00ak arte egingo dela aukera aurrez izena emateko

MENDI MARTXA • M. ZUAZUBISKAR

Erdella mendizale taldeak Elorrioko Bira antolatu du domeka honetarako, irailak 26, urtero iraileko laugarren domekan egin ohi duen moduan.

Aurtengo ediziorako, gainera, Erdella mendizale taldeak ibilbide bi antolatu ditu Elorrio inguruko mendi eta auzoetan zehar: bata 32 kilometrokoa izango da eta bestea 15 kilometrokoa.

Antolatzaileek jakinarazi duteenez, hasieran, amaieran eta kontrol guneetan ezinbestekoa izango da musukoa erabiltzea, baita jende pilaketak egon daitezkeen guneetan ere. Martxa hasieran jatekoa eta edatekoa emango dutela esan dute.

Martxan parte hartu ahal izateko, aurrez izena emateko aukera egongo da, irailaren 24ko 19:00ak arte.



JANTZARI

Tradizioa eta parekidetasuna

FILMIN

plataforman ikusgai!

www.jantzari.eus











Ekainean aukeratu eta aurkeztu zuten Tabirako saskibaloia klubaren zuzendaritza berria.

Tabirako klubak herritarrengana gerturatuz hasiko du denboraldia

Asteburu osoan hainbat ekintza burutuko dute Andra Mariko elizpean

SASKIBALOIA • J.D.

Tabirako saskibaloia klubetik, herritarrengana gerturatuz hasi gura dute denboraldia. Horretarako, zapatuan eta domekan, goizean zein arratsaldean, hainbat karpa jarriko dute Andra Mariko elizpean eta hainbat ekintza burutuko dute.

Herritarrek kluba hobeto ezagutzeko da ekimenaren helburuetariko bat, azken hiletan aldaketak izan dira eta. Klubak zuzendaritza berria du, esaterako. Horrela, zuzendaritzako arduradunak eta taldeetako entrenatzaileak han egongo dira egunean zehar, eta

gura dutenek eurak ezagutzeko aukera izango dute.

Zuzendaritzako kideak eta entrenatzaileak ezagutzeko aukera izango dute herritarrek

Cafés Baque enpresako kideak ere bertaratuko dira. Izan ere, aurtengo denboraldian 50 urte betetzen dira kafe-enpresaren eta Tabirakoren arteko lankidetzaren hasi zenetik. Ildo horretatik, efemeride

horri loturiko logotipo berria aurkeztuko dute.

Ekintza ludikoak ere izango dira; esaterako, saski batzuk ipiniko dituzte, jaurtiketak probatu gura dituenarentzat.

Gaur, taldeen aurkezpena

Bestalde, gaur, 17:00etan, Tabirako klubeko talde guztien aurkezpena egingo dute merkatu plazan. Toki hori aukeratu dute hainbat sarrerarirteera duelako. Publikorik bako ekimena izango da eta, besteak beste, 50. urteurrenko kamiseta berriak aurkeztuko dituzte.

Aitor Ajuria eta Ainara Uribarri garaile Sorginen Lasterketan

Emakumeen podiuma Durangaldeko korrikalari bik osatu zuten: Aritz Villa abadiñarra bigarren tokian geratu zen eta Garazi Sampedro atxondarra hirugarren

MENDI LASTERKETA • J.D.

Joan zen asteburuan lehiaturiko Sorginen Lasterketaren 14. aldia Aitor Ajuria otxandiarrak irabazi zuen gizonetan (2.03.35) eta Ainara Uribarri oñatiarrak emakumeetan (2.37.43). Azpimarratzekoa da emakumeetako podiuma Aritz Villa abadiñarrak (2.39.30) eta Garazi Sampedro atxondarrak (2.46.15) osatu zutela. Gizonetan, Ajuria eta Imanol Goñi natxituarra elkarregaz heldu zi-

Gizonetan Ajuria eta Imanol Goñi natxituarra elkarrekin eta eskutik helduta helmugaratu ziren

ren helmugara; garaipena lehiatu beharrean, gurago izan zuten eskutik helduta helmugaratu, bata bestearen lana aintzatetsiz. Gizonetako podiuma Aitor Zunzunegi legorretarrak osatu zuen.



Aitor Ajuria otxandiarrak Sorginen Lasterketan. ANE BERNAS

Jokaldia

Urte osoa egun bati begira

Data ezartzea izan zen errazena, nahiz eta hori ere ez zen lan samurra izan hainbeste lasterketa pilatzen den sasoi honetan. Buruko min handiagoa eman zigun ibilbide aldaketaren erabakiak. Korrikalari gehienek bidegorri zatia kentzea eskatzen ziguten urtero, eta horrek bultzatu gintuen mendi kutsu handiagoa izango zuen ibilbide baten bila hastera. Zer nolako zenbaki festa! 21 kilometrotan 2.000 metrotik gorako desnibela zuen ibilbide bat ere egin genuen behin, Ipizte sartu nahian, besteak beste. Hainbat buelta eman eta gero, aurtengoan geratu zaigu behin betiko ibilbidea. Oso emaitza ona izan da aurtengoa; izan ere, astean zehar egin dugun galdetegian korrikalarien %90ek notarik altuena eman diote ibilbide berriari.



Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketa

"Buruko min handiagoa eman zigun ibilbidea aldatzeak. Korrikalari gehienek bidegorri zatia kentzea eskatzen ziguten"


"Argi ikusi dugu beste behin ere, lasterketa hau herriak egiten duela posible. Oso esker oneko gaude"

Zenbakiakin jarrai nezake, esanez 100 laguntzailek baino gehiagok lagundu dutela Sorginen Lasterketan, beti ere gogoratuz zenbaki horien atzean herritarren izenak daudela. Argi ikusi

dugu beste behin ere, lasterketa hau herriak egiten duela posible. Oso esker oneko gaude lagundu diguzuen guztiekin. Eskerririk asko, Iñigo, Kimetz, Ane, Egoitz, Iratxe, Adrian, Maialen, David, Oihana, Aitor, Libe, Peru, Idoia, Asier, Aiora, Unai, Oier, Goitz, Igor, Goizane, Peio, Arrate, Unax, Itsaso, Alex, Eva, Jon, Nahikari, Jorge, Nerea, Jokin, Irati, Aiert, Goretti, Alex, Bego, Aritz, Ruben, Marta, Jon Ander, Juanjo eta abar luze bat. ANBOTO astekarieren erdia beharko nuke den denak aipatzeko. Denok zaituztegu buruan, hasi eskoba lanak egin zutenetatik, Anbotoko segurtasun arduradunei, argazkilariei, bidegurutzeetakoiei, anoa gunetakoiei, trafikoa kudeatu zutenei, denei. Azkenik, ezin ahaztu herriko jatetxe eta enpresek urtero ematen diguten babes. Mila esker!



merkataritza gida sarean



anboto.org/gida



***Ezagutu eta erabili Durangaldeko
merkataritza gida BERRIA
euskaraz eta sarean!***

Merkatari gidan parte hartzeko deitu: 946 217 902
Argazkiak - Datuak - Kokapena
(urtean 50€)

Eskelak jartzeko: 946 816 558
edo anboto@anboto.org

Eskela mota guztiak

- Anboto paperean + anboto.org-n: 100€ (Anboto txartela dutenentzat 90€)
- Paperean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)
- Webgunean: 60€ (Anboto txartela dutenentzat 50€)

Botikak

BARIKUA, 24 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

ZAPATUA, 25 · 09:00-09:00

GAZTELUMENDI J.A. Abasolo 2 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-13:30

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

UNAMUNZAGA Muruetatorre 2C - DURANGO

CAMPILLO Montevideo etorb. 24 - DURANGO

NAVARRO Artekaleara 6 - DURANGO

LARRAÑAGA-BALENTZIAGA Berrio-Otxoa 6 - ELORRIO

FARMAZIA MATIENA Trañabarren 15. - ABADIÑO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

GOIRIA, MARI CARMEN Sabino Arana 6 - ZORNOTZA

MELERO, ROSA MARI San Pedro 31 - ZORNOTZA

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente Kapanaga 3 - IURRETA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

DOMEKA, 26 · 09:00-09:00

MUGICA Andra Maria 9 - DURANGO

GUTIERREZ, IBAN Txiki Otaegi 3 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

ASTELEHENA 27 · 09:00-09:00

IRIGOIEN BIXENTE Kapanaga 3 - IURRETA

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

MARTITZENA, 28 · 09:00-09:00

SARRIA Sasikoa 17, DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUAZTENA, 29 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - DURANGO

RUIZ, JUAN El Alto-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

EGUENA, 30 · 09:00-09:00

DE DIEGO Intxaurren 22. - DURANGO

RUIZ, JUAN EL ALTO-Bide Zahar 14 - ZORNOTZA

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte poligonoa, 4 P8 - ABADIÑO

SARASKETA, DIEGO Luis Urrengoetxea 5 - ZORNOTZA

IRUARRIZAGA, KARMELE San Miguel 15 - ZORNOTZA

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENeko 14:00AK ARTEKO EPEA



GOZATU GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hamabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu.** Zozketan parte hartzeko bidali kontaturako datuak zorion-agurrekin batera.




Zorionak, **Garazi!** Oso ondo pasau zure egune. Ane, aita eta aman partez.



Irailaren 26an **Haizeak** 19 urte egingo ditu. Zorionak ama, J, Aratz, aita, Lur, Oreo, Goku eta Booren partez.



Zorionak, **Libe!** 4 urte dagoeneko, neska handi! Ondo pasa zure eguna. Muxu handi bat danon partez!



Ijorretako gure jitanillari zorionak. Muxu handi bana Anjeluzeko kuadrillien partez.



Zorionak, **Anetxu!** 8 urte! Urtebetetze polita izan, besarkada eta maitasunez betea, familia guztiaren partez!

Eguraldia

ZAPATUA ↓ 27° / 17° ☀

ASTELEHENA ↓ 21° / 14° ☁

EGUAZTENA ↓ 19° / 13° ☁

DOMEKA ↓ 26° / 14° ☁

MARTITZENA ↓ 21° / 13° ☁

EGUENA ↓ 19° / 12° ☁

ALDEKOA-OTALORA
iturgintza

BEROKUNTZA – AIREA – GASA
INDUSTRI MANTENTZEA

info@aldekoaotalora.com

Zubiaurre, 8 IURRETA

946 202 768

Arzobia 10 B industrialdea, 13-14 pabilioiak ABADIÑO

944 071 791 - 692 859 779

“Kazetaritza oso lanbide gogorra da, baina gogorra bezain erakargarria”

Ane Ibarzabal kazetari durangarra etxera bueltatu da azken 16 urteetan Madrilen egon eta gero. 'A la Calle' telebista saioa gidatzen du arratsaldero, Aitor Albizuagaz batera



Ane Ibarzabal Astigarraga

Kazetaria

DURANGO | 1982

DURANGO • AITZIBER BASAURI

Ane Ibarzabal CNN+, Cuatro, T5 eta TVE telebista kanaletan ibilitakoa da, 16 urtean. Albistegietako formatu zurruna alboratu eta erronka berri bati heldu dio. Arratsaldero ordu biko magazina aurkezten du EITBn. Durangarrak ilusioz ekin dio erronka berriari.

Madrilen 16 urte egin ondoren, zela-koa izan da Durangora bueltatzea?

Ederra! 22 urtegeaz joan nintzen eta 38gaz bueltatu naiz. Hiru aste daromatzen Durangon eta oraindino egokitzen nabil. Pozik eta lasai nago, azken batean etxera bueltatu naiz eta. **Urte hauetan guztietan, albistegietan lan egin duzu, batez ere. Formatuz**

aldatu duzu, oraingoan magazin bat gidatuta.

Arlo informatzaileagoan, gai politikoagoetan lan egin dut, bai. Orain, istorioak kontatzen ditugu eta ikusleak dira protagonista. Askoz ere formatu zurrunagoan ibili naiz eta ohitu egin behar dut. Alde horretatik, erronka bat da niretzat. Ez zegoen nire egitasmoen barruan Durangora bueltatzea, baina *A la Calle* saiorako eskaintza heldu zitzaidan. Ilusio handia eragin zidan: ordu biko saioa zuzenean, arratsaldez, istorioak kontatzeko, jendeagaz hartu-emanen, inprobisatzeko aukeragaz... Durangora bueltatu eta ikasten jarraitzeko aukera iruditu

zitzaidan, profesionalki aurrera egiteko, hazten jarraitzeko aukera. Eskaintza egitean, honako galdera

“Askoz ere formatu zurrunagoan ibili naiz eta ohitu egin behar dut. Alde horretatik, erronka bat da niretzat”

egin zidaten: 'buelatu gura duzu etxera?'. Bada, horrelako gauzak zerbaitegaitik gertatzen direla pentsatu nuen, hura zela momentua.

Kaleko erreportariak pisu handia dute 'A la Calle' saioan. Egokitu izan zaizu askotan gutxietsia den lan hori egitea? Bai, denbora asko egin dut kalean, eta kalea da gehien gustatzen zaidana. Istorioekin hartu-emanen zaudelako, bestela inoiz sartuko ez zinatekeen etxeetan sartzen zarelako, inoiz ezagutuko ez zenituzkeen tokiak ezagutzen dituzulako. Kazetaritza oso lanbide gogorra da, baina gogorra bezain erakargarria. Kalean zaudenean, batez ere.

Bokazioz zara kazetari.

Bai, umetatik gura izan dut kazetaria izan. Egon dira momentu gogorak, egon badaudelako, baina izugarri gustatzen zait lanbide hau eta ezergaitik ere ez nuke aldatuko. Istorioak kontatzea gustatzen zait, munduan gertatzen dena azaltzea, jendea, istorioak ezagutzea... Batez ere, giza-istorioak ditut gogoko, eta lanbide honek asko du horretaz.

“Bizitzak, eta lanbide honek, buelta asko ematen ditu; bada, egunerokoa disfrutatzen dut”

Nori egingo zenioke elkarrizketa?

Asko dira, momentuaren arabera da. Orain, Espainiak Kabul (Afganistan) izan duen enbaxadorea elkarrizketatuko nuke. Ahalik eta herritarrik gehien ebakatu arte han egon zenari galdetuko nioke, adibidez, zelakoak izan ziren egun haiek Kabuleko aireportuan. Ingrid Betancourt ere asko erakarri nauen pertsona izan da. Gertatzen ari denari buruz esateko zerbait duten horiek erakartzen naute, batez ere. **Madriletik Durangora, aldaketa handia da hori.**

Gelditu barik nabil eta ez dut horretan pentsatzeko astirik izan. Egia da aldaketa handia dela. Asko gustatzen zait Madril, han etxea dut oraindino; eta gaur egun Madril eta Durango artean bizi naiz. Dena dela, egunean bizi naiz, ez dakigu-eta zer gertatuko den hemendik lau hilera. Bizitzak, eta lanbide honek, buelta asko ematen ditu. Bada, egunerokoa disfrutatzen dut.

Lau-hortza

Igor Galartza
intxausti
Kazetaria



Garaiak

Ez dira betiko garai onenak. Azken finean — gutxi ikasi eta asko ahaztu dugun — gizaki hutsak gara. Asko dira garai zaharrera bidea egin gura dutenak, eta asko garai berrian zoriontasuna aurkitu dutenak. Bada, ni bigarren taldean nago. Bai, oso pozik nago. Pozik nago, uda bukatu delako (badakit asko gorrotatuko nautela), pozik nago udazkena etorri delako, eta horrek agian gehienei malako bat isuriarazi, niri irribarre bat ateratzen dit.

Izan ere, irailagaz batera etorri dira Xilabako, Nafarroako eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketak. Eta agian “bertsofrikia” ez denak ez du inongo aldaketarik izango bere egunerokotasunean. Baina bagara gutxi batzuk datozen hilabeteak urduritasunez, zer eta nola gertatuko zain, irrikagaz biziko ditugunak. Batzuek oholta gainetik gozatu (eta sufritu ere bai) ahal izango dugu. Hori pentsatzeak momentu batez oinak behearen gainetik pare bat zentimetro hegan daudela legez jartzen nau. Baina ez dut gehiegi pentsatu gura, ea garaiera garaiegia hartu behar dudana eta Garai eta Abadiñoren artean dagoen garaiera aldearen tamainako ipurdikoa hartu behar dudana.

Gainera, Durangaldeak emango dio hasiera Bizkaiko txapelketari. Ibaizabal ibaiaren norabidean, Durango hasteko eta Elorrio osteko, Bilboko Miribillaren marabillaraino helduko da txapelketa. Ea ibaiak berea egiten duen, eta eskualdeko ordezkariak badugun hiriburuan! Eta eskatzeagatik...

Ez dira betiko garai onenak. Baina barealdiaren osteko ekaitza leuntzen lagunduko digunik bada. Busti zaitezte, gozatu datorren euri jasaz — kulturalaz ari naiz, noski —, baina ez ahaztu guardasola!



Hizkuntza Escuela Oficial
Eskola Ofiziala de Idiomas

Matrikula zabalik

Irailaren 30era arte aukera duzu izena emateko. Sartu gure web orrian eta egin eskaria.

Zalantzarik baduzu, deitu eskolara.

72,36€ ikasturte osoa

www.eoidurangoheo.hezkuntza.net
94 620 33 42 - 94 681 66 45

Hizkuntza eskolan?
Bai. Ikasi euskara / Ja. Lernen Sie Deutsch
Oui. Apprenez le français / Yes. Learn English

